



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 17a

145. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, osasungintzako arreta ez-presentzialaren arloko osasungintza-politikari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, minbiziaren arloko prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren eta ikerketaren arloan Nafarroan dauden politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak osasungintzako hitzarmenen arloan legegintzaldi honetan darabil-tzan politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, osasungintzako itxarote-zerrendak kudeatzeko politikari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio María de Servini epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainia-ko Gobernuarekin lankidetzaz-hitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena lankidetzan aritzea AHTa garatzeko, Nafarroa Mediterraneoetik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adie-razten baitie uholdeek kaltetutako pertsoneri eta herriei. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Zahartze Aktiborako Alloko Zentro Balioaniztun berriaren helburuei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Aragoi ibaiaren Kasedako tartean izandako isurketen jatorriari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Ribaforada inguratuko duen eta Fustiñanako sarrerarekin lotuko den saihezbide bat eraikitzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, etxeko laguntza psikiatrikoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, COVID-19aren pasaporte egiaztatze aplikazio bati buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako hautatu beharreko lau kideak hautatzea. Hautagaiak aldarrikatzea (16. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauak (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoaren ereduari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Erriberriko Etengabeko Arretarako Gunea 2019an itxi zen gaueko ordutegian, eta azken hila-beteotan etengabeko arretarako zenbait gune sendagilerik gabe egon dira egun jakin batzuetan. Aipatu neurriak horri buruzko planik eduki gabe hartzen ari dira, Osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko otsailaren 14ko 2/2013 Foru Legean bestela xedatzen bada ere. Jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer eredu baliatuko duen osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari dagokionez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, osasungintzako arreta ez-presentzialaren arloko osasungintza-politikari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea osasungintzako arreta ez-presentzialaren arloko osasungintza-politikari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, osasungintzako arreta ez-presenztialaren arloko osasungintza-politikari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak pandemian zehar ezarri duen arreta

ez-presenztialeko eredia arbuiatu egin dute profesional eta herritar gehienek. Pandemiaren urte eta erdi hau eta gero, oso handia izaten jarraitzen du osasungintzako arreta ez-presenztialen portzentajeak. Jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer neurri abiarazi nahi dituen osasungintzako arreta ez-presenztiala dela-eta.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, minbiziaren arloko prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren eta ikerketaren arloan Nafarroan dauden politikei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, minbiziaren arloko prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren eta ikerketaren arloan Nafarroan dauden politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

en Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, minbiziaren arloko prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren eta ikerketaren arloan Nafarroan dauden politikei buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasungintza-sistemetan eta gaixoen nahiz haien familien bizi-kalitatean inpaktu handia duen gaixotasun bat da minbizia. Nafarroako Gobernuarentzat lehentasun behar dute izan prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, arretaren eta ikerketaren arloko osasungintza-politikek. Jakin nahi dugu zer neurri ezarri nahi dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroan minbizia prebentzeko eta minbiziari erantzuteko.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak osasungintzako hitzarmenen arloan legegintzaldi honetan darabiltzan politikei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Gobernuak osasungintzako hitzarmenen arloan legegintzaldi honetan darabiltzan politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernuak osasungintzako hitzarmenen arloan legegintzaldi honetan darabiltzan politikei buruzkoa.

Gaur egun Nafarroako Gobernuaren parte diren edo hari babesa ematen dioten talde parlamentarioek iraganean behin eta berriro deitoratu izan dute UPNren ardurapekoak izandako gobernuen osasungintzako hitzarmenen politika. Hala ere, azken urteotan handitu egin da osasungintzako hitzarmenetan egindako gastua. Jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer politika baliatuko duen, hemendik legegintzaldia bukatu arte, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari eta prestazio nahiz hitzarmenetako gastuari dagokienez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, osasungintzako itxarote-zerrendak kudeatzeko politikari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea osasungintzako itxarote-zerrendak kudeatzeko politikari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, osasungintzako itxarote-zerrendak kudeatzeko politikari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Pandemian zehar, lehen kontsultarako, kirurgiarako eta hurrengo kontsultetarako batez besteko itxaronaldirik okerrenetara ailegatu gara Nafarroan. Jakin nahi dugu ea Osasun Departamentuak zer politika ezarri nahi dituen epe motzera nahiz epe ertain eta luzera, osasun arloan itxaron beharreko denborak murrizteko.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruz José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Aurrekontuek berebiziko garrantzia dute edozein gobernurentzat, gobernuek beren programa politikoak gauzatzeko duten tresna nagusia diren aldetik.

Are gehiago gutxiengoa izanda gobernatzen duten alderdien kasuan –legegintzaldi honetan, kasu–, beharrezkoa baitzaie akordioak bilatzea; eta horrek, jakina, baldintzatu egingen ditu aurrekontu-politika, programa politikoak, zerbitzu publikoak nahiz herritarren ongizatea.

Horregatik guztiagatik, haren aurrekontu-politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gogoz kontrako bakardadearen aurkako foru-estrategia presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasunaren Mundu Erakundeak bakardadea XXI. mendeko pandemia handienetako bat dela uste du jada. Bakardadea positiboa gerta daiteke libreki egindako hautua baldin bada, baina jada osasun publikoko arazo bat da, egungo gizarteari eragiten diona eta etorkizunean larriagotu daitekeena. Bakardadeak, borondatezkoa ez denean, ondorio negatiboak ditu bakarrik dagoen pertsonarentzat, eta pertsona horiek mendekotasun egoeran erortzeko faktore erabakigarri bat da.

Adinean aitzinera egin ahala, pertsonak gero eta probabilitate handiagoa du bizikide duen pertsona bat hiltzeko, erretiroa hartzeko, harreman sozialak murrizteko, osasun-arazoak izateko, ustekabeko mendekotasuna pairatzeko, eta

horrek guztiak sare soziala murrizten du eta bakardade-sentimendua errazten.

Gure herrian, bi milioi pertsona baino gehiago bizi dira bakarrik, eta bostetik batek dauka 65 urte baino gehiago, Estatistikako Institutu Nazionalaren 2019ko apirilako datuen arabera.

80 urtetik goitikoen artean, bakarrik bizi dira 850.000, eta askok mugikortasun-arazoak dituzte, etxetik laguntzarik gabe irtetea eragozten dietenak. Azterlan askok erakusten dute bakarrik bizi diren zaharren osasun-egoera okerragoa dela eta bizi-asegabetasun handiagoa dutela.

Egoera hori erabaki pertsonal baten ondorioz heldu ez baldin bada eta pertsona horien bizitzaren joan-etorrian gertatutako inguruabarren ondorioz heldu baldin bada, bakardadea arazo bilakatzen da.

Datuek frogatzen dute bakardade-sentimenduen gizarte-profil, adin eta genero guztiei eragiten diela eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz areagotu dela.

Gurutze Gorriak egin berri duen azterlan batean jasotzen denez, gure erkidegoan 64 urtetik goitiko 29.000 inguru bizi dira bakarrik. Ez dute horiek denek bakardadea sentitzen; izan ere, bakardadearen pertzepzioan zeresana dute sexuak, inguru-nea landakoa ala hirikoa den, errentaren mailak, Nafarroan edo kanpoan jaio izanak eta abar.

Azterlan horrek gogoz kontrako bakardadea pairatzeko arriskuari buruzko profil bat marrazten

du, eta neurriak –aringarriez gain, prebentiboak– ezartzeko balio behako luke.

Fenomeno horri aurre egiteko, administrazioek eskutik lan egin beharko lukete; halatan, bakoitzak bere eskumenen barruan eta dagozkion erantzukizun-arloetatik, prebentzio-programak nahiz arrisku eta babesgabetasun egoerak detektatzeko programak abiarazi behar dituzte; horretarako, beharrezkoak dira esku-hartzea eta babesa, eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezarri behar dira.

Argi dago pertsonen bizi-garapenaren arlo guztietatik egin behar zaiola aurre gogoz kontrako bakardadeari. Entitate publikoek aurre egin beharreko erronka da.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren aurkako foru-estrategia presta dezan, adituen aholkuak kontuan hartuta eta herritarren parte-hartzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren aurkako foru-estrategia presta dezan, toki-esparruak Eskubide Sozialerako Departamentuarekin batera azter dezan zer jarduketara egin daitezkeen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 26an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio María de Servini epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio María de Servini epaileak Rodolfo Martín Villaren aurka

2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2019ko martxoaren 14an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez babesa eman baitzitzaion 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Germán Rodríguezen senitartekoei, poliziak balaz zauritu eta lesionatutako zenbait pertsonak, Iruñeko Peñen Federazioak eta Sanfermines-78: Gogoan! elkarteak jarritako kereilari. Kereila hartan, orduko barneko ministro Rodolfo Martín Villa jotzen zen gertakari haien arduradun politiko nagusi.

Geroxeago, 2020ko martxoaren 9an, Nafarroako Parlamentuak beste erabaki bat onetsi zuen, eta haren bidez berretsi zuen aldeztu egiten zuela “argentinari kereila' deritzona”, eta poztu egiten zela “María Servini epailearen lanarekin, zeina bideratuta baitago frankismoak egin zituen gizateriaren aurkako krimenetatik justizia unibertsalaren printzipioaren aplikazioz eratorriak diren erantzukizun penalak ikertu eta zehaztera”. Erabaki hartan, Nafarroako Parlamentuak orobat adierazi zuen “bere borondatea zela Espainiako Estatuko botere publikoek beharrezkoak diren baliabide guztiak María Servini epailearen eskuetan jar ditzaten, hark bere ikerketa-lana egin eta Rodolfo Martín Villari deklarazioa hartu ahal izateko”.

Azkenik, 2021eko urriaren 15ean, Argentinari Errepublikako Krimen eta Zentzategi arloko 1. Epategi Nazionalako epaile titular María de Servini Rodolfo Martín Villaren aurkako auzipetze-auto bat eman zuen, lau giza hilketari larrigotuko deli-

tuengatik, gizateriaren aurkako krimenen testuinguru batean; horien artean, Germán Rodríguezena dago, 1978ko sarferminetan poliziaren tiroek hil baitzuten.

Horiek horrela, Iruñeko Udalak –kereila horretan inplikaturik dagoen parte den aldetik– ondortik heldu den erabakia onetsi zuen, Iruñerriko beste udal batzuek bezala, iragan azaroaren 4an. Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Argentinari Errepublikako Krimen eta Zentzategi arloko 1. Epategi Nazionalako epaile titular María de Servini Rodolfo Martín Villaren aurka 2021eko urriaren 15ean emandako auzipetze-autoari, zeinean jasotzen baitira 1978ko sanferminetako gertakariak eta poliziak Germán Rodríguez Saiz hil izana, frankismoak gizateriaren aurka egindako krimenen testuinguruko krimen gisa, Nafarroako Parlamentuak lehenago hartutako erabakiekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralari nahiz Espainiako Justiziarik eskatzen die kasuari aplikatzekoa zaion nazioarteko arauditik heldu diren betebeharrak bete ditzaten eta, hartara, laguntza aktiboa eman dezaten María de Servini epaileak emandako auzipetze-autotik heldu den prozesuan.

3. Nafarroako Parlamentuak Servini epaileari helaraziko dio erabaki hau, jakinaren gainean egon dadin eta ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Foru parlamentariak: Jabi Arakama, Bakartxo Ruiz, Ainhoa Aznárez eta Marisa De Simón

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzahitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena lankidetzan aritzea AHTa garatzeko, Nafarroa Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko honako mozio hau erretiratu izanaz: horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzahitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena lankidetzan aritzea AHTa garatzeko, Nafarroa Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin. Mozioa 2021eko irailaren 10eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00134).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten baitie uholdeek kaltetutako pertsoneri eta herriei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten die azken egunotako euriteen ondorioz Nafarroako zenbait eremutan gertatu diren uholdeek kaltetutako pertsoneri eta herriei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere atxikimendua eta elkartasuna adierazten die uholde horien ondorioz Sunbillan eta Lesakan hildakoen familiei eta hurbilekoei.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du erakunde eskudunek lehenbailehen hartu behar dituztela hondamendi horrek kaltetutako eremu eta herri

guztietan normaltasunera itzultzeko hartu beharreko neurri guztiak.

4. Nafarroako Parlamentuak erakunde nahiz entitate eskudunei eskatzen die arin konpon ditzaten gertaera honen ondorioz ondasun publikoetan izandako kalteak eta, beharrezkoa bada, aurrekontu-kreditu bereziak gaitu ditzatela xede horrekin.

5. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena adierazten die zerbitzu publikoetako langile guztiei, bai eta kaltetutako eremuetan normaltasunera itzultzeko eta bertako bizilagunek jasandako kalteak konpontzeko elkartasunez lanean aritu diren boluntario guztiei ere”. (10-21/DEC-00072).

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

F saila:
GALDERAK

Galdera, Zahartze Aktiborako Alloko Zentro Balioaniztun berriaren helburuei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Zahartze Aktiborako Alloko Zentro Balioaniztun berriaren helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer helburu ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak Allon abiarazi berri duen Zahartze Aktiborako Zentro Balioaniztunak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Aragoi ibaiaren Kasedako tartean izandako isurketen jatorriari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aragoi ibaiaren Kasedako tartean izandako isurketen jatorriari buruz Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gómezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020ko ekainean apar zuri bat hasi zen agertzen Aragoi ibaiko uretan, Kaseda parean. 2021eko udaz geroztik, egoera hori etengabekoa izan da. Gertakariak kezka ikaragarria eragin du Kasedako bizilagunengan, bai eta bisitarien artean ere. Horri buruz:

Nafarroako Gobernuak zer egin du orain arte, zer ondorio atera ditu eta noiz eta nola aztertuko du isurketa horren jatorria zein den? Noiz eta nola konponduko du arazoa behin betikoz?

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Ribaforada inguratuko duen eta Fustiñanako sarrerarekin lotuko den saihebidetarako erabakia buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Ribaforada inguratuko duen eta Fustiñanako sarrerarekin lotuko den saihebidetarako erabakia buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Gobernuak Parlamentu honetako hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ribaforadako herria Nafarroako Erriberako hegoaldean dago, A-68 Ebroko autobidearen eta Ebro ibaiaren eta Aragoiko Ubide Inperialaren artean.

Ribaforadatik ekialdera dauden Fustiñana eta Cabanillasko herrietako sarrerarekin lotuko den saihebidetarako erabakia buruzkoa.

NA-5202 errepidea, zuzenean lotzen da A-68 Ebroko autobidearekin, 107. irteeraren bidez.

Aipatu NA-5202 errepideak Ribaforadaren hirigunea zeharkatzen du erabat, eta haren trazadura Konstituzioaren etorbidearekin bat egiten du. Errepide horrek hartzen duen ibilgailu-trafiko osoak Ribaforadaren erdigunea zeharkatzen du egunero, horrek dakartzan eragozpenekin eta arriskuarekin.

Era berean, A-68 Ebroko autobidetik Fustiñanako eta Cabanillasko industrietarantz etorri ohi diren kamioiek 10 kilometro inguruko itzulinguru bat egin behar izaten dute Buñuel aldetik, Ribaforadako igarobidea (murriztua) ekiditeko.

Aspalditik eskatu izan da saihebidetarako erabakia, Ribaforada inguratu eta Fustiñanako sarrerarekin lotuko duena, ekidite aldera egun Ribaforada zeharkatzen duen ibilgailu-trafiko hori guztia bertan barna igarotzea, halatan herri horretako bide-segurtasuna zein herritarrena hobetzeko.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak aurreikusten al du inolako jarduketarik, aipatu saihebidetarako egiteko erreklamazioa asetzeko?

Iruñean, 2021eko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, diagnostiko mediko ezberdinak dituzten pertsonen COVID-19 kasuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zenbat pertsona daude Nafarroan honako diagnostiko hauekin?

- a. Diabetesa
- b. Kardiopatia iskemikoa
- c. Bihotz-gutxiegitasuna
- d. Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa
- e. Asma
- f. Garuneko eta odol-hodietako gaixotasuna
- g. Zirrosi hepaticoa
- h. Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa
- i. Dementia
- j. Neuroendekapenezko gaixotasunak
- k. Gaixotasun arraroak
- l. Obesitate morbida
- m. Tratamendu aktiboko minbizia

2.- Lehendabiziko puntuko talde horietako bakoitzean, zenbat dira, guztira, COVID-19aren kasu egiaztatuak, COVID-19a dela-eta ospitaleratutakoak, COVID-19a dela-eta ZIUn ospitaleratu-takoak eta COVID-19ak hildakoak pandemia hasi zenetik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, etxeko laguntza psikiatrikoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea etxeko laguntza psikiatrikoari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Urriaren 21ean, parlamentaria naizen honek informazioa eskatu nion Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatu zenetik psikiatreek etxean baloratutako gaixoen kopuruari buruz (10-21/PEI 994). Informazio-eskaera hori egin nuen, hain zuzen ere, Osasuneko kontseilariak eta Osasun Mentaleko kudeatzaileak egindako agerraldi parlamentario batean galdera zuzen eta zehatz bat egin nuelarik erantzun gabe gelditzen zela ikusita, hori baita Osasuneko kontseilariak Nafarroako Parlamentuan egiten dituen agerraldietan gertatu ohi dena.

2021eko azaroaren 22an –hilabete geroago, alegia–, Osasuneko kontseilariak informazio-eskaerari emandako erantzuna jaso nuen (10-21/PEI- 00994), baina hor ere ez zion eskatutakoari erantzuten, Osasun Departamentuak ez omen duelako informazio hori dakarren aurretiazko txostenik. Hori da Osasuneko kontseilaria azken hilabeteotan behin eta berriro erabiltzen ari den arrazoi parlamentario honek idatziz eskatzen duen informazio oro ukatzeko.

Kontuan hartuta Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatzean Osasun Departamentua-

ren neurri estrategikoetako bat izan zela psikiatreek etxeko laguntza ematea, parlamentari naizen honi bai agerraldia egin zenean, bai informazioa berriaz eskatu dudanean informazioa ukatu zaidanez, informazio hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatren agendetan dagoenez gero informazioa modu errazean eskuratzen ahal denez, honako hau galdetzen dut:

1.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatreek etxeko laguntzarik eman al diete gaixoei Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatu zenetik gaur arte?

2.- Hala baldin bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatreek zenbat gaixo baloratu dituzte etxean, Osasun Mentaleko kudeatzaile berria izendatu zenetik gaur arte?

3.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak aurreikusitako neurria al da oraindik ere etxeko laguntza psikiatrikoa?

4.- Osasun Departamentuak zer baliabide josten ditu beharrezkotzat etxeko laguntza psikiatrikoa bermatu ahal izateko?

5.- Nola eta noiz ezarriko du laguntza hori, kontuan hartuta Osasun Departamentuak egun bete gabe dituen psikiatriako baliabideak?

6.- Osasuneko kontseilariaren ustez, akatsa izan al zen eman ezin duen etxeko laguntza psikiatrikoa emateko konpromisoa hartzea?

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, etxebizitza-parkea zaharberritze aldera Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak daukan aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-

tan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zer aurrekontu dauka aurrekontu ematen zaion eguneko aurrekontu bateratua eta bete den aurrekontua zeintzuk diren jakin nahi dut.

2. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak etxebizitza-parkea zaharberritzeraz bideratutako aurrekontuaren zer parte baliatu da stricte sensu Irigarritasunari buruzko Foru Legea betetzeraz?

Irigarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea betetze aldera zaharberritzean sartzen direla uste den kontzeptuak zeintzuk diren adieraztea nahi dut.

3. Irigarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea 2021ean egokitutako eta zaharberritutako etxebizitzaren kopurua zein da?

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, COVID-19aren pasaporte egiaztatze aplikazio bati buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea COVID-19aren pasaporte egiaztatze aplikazio bati buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, ez du departamentuaren bidez inolako aplikaziorik garatu COVIDaren pasaporte egiazta zeko, ostalaritzako sektoreari banatzeko eta, hartara, egiaztapena zuzen egin ahal izateko izaten ari diren arazo guztiak ekiditeko. Zergatik?

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako hautatu beharreko lau kideak hautatzea.

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako hautatu beharreko lau kide hautatzeko arauekin bat, zeinak 2021eko maiatzaren 31ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (73. NPAO, 2021-06-01ekoa), honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako hautatu beharreko lau hautagaiak aldarrikatzea. Hona hautagaiak:

– Javier Miranda Erro jauna, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Izquierda-Ezkerra

talde parlamentario mistoak eta Podemos Ahal Dugu Nafarroa Foru parlamentarien elkarteak proposatuta.

– Marta Rodríguez Fouz andrea eta Mikel Berraondo López jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuak.

– Roldán Jimeno Aranguren jauna eta María Soledad Barber Burusco andrea, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuak.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelana araubidean egiteari buruzko arauak.

COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egite aldera administrazio publikoetako telelanaren arloan eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen arloan presako neurriak ezartzen dituen irailaren 29ko 29/2020 Lege-dekretuaren bidez artikulua berri bat gehitu da –47. bis artikulua– telelana espresuki arautzen duen Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginean, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Horren arabera, telelana urruneko zerbitzu-ematearen modalitate bat da, zeinean, zerbitzuaren beharrezanek horretarako modua emanaz gero, lanpostuaren zereginak Administrazioaren

instalazioetatik kanpo bete baitaitezke, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

Zerbitzua emateko modalitate hori heldu da Bruselan, Europako Batzordearen ekimenez, 2002ko uztailaren 16an onetsi zen Telelanari buruzko Esparru-akordiotik. Kontseilu Europarrak, Enplegurako Estrategia Europarraren esparruan, gizarte-solaskideei dei egin zien akordioak negoziatzatzen lanaren antolamendua modernizatzeko. Europako Batzordeak, berriz, negoziazioak abiaraztera premiatu zuen, ezagutzaren ekonomiarako eta gizarterako trantsizioa prestatzen joateko, Lisboako Kontseilu Europarrean erabakita-koari jarraikiz.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan arlo horri buruzko arau bereki bat izapidetzen ari da une honetan. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Administrazioan telelana garatzeari buruzko irizpide orokorrak –telelana foru dekretu bidez arautuko da– aurkeztu zizkien ekainean Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean dauden sindikatuei. Ezagutarazi den telelanari buruzko foru dekretuaren aurreproiektuaren bidez arautu nahi da zerbitzua urrunetik eman ahal izatea lana telelanaren modalitate horretan egin daitekeen lanpostu bat betetzen duten Nafarroako Gobernuko langileek. Foru dekretu hori egitean honako helburu hau lortu nahi da: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den agindua zertzea, telelana zerbitzu-emate ez-presentzialeko modalitate gisa araututa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2021eko uztailaren 26ko akordio baten bidez –2021eko abuztuaren 6ko NPAO–, Nafarroako Parlamentuko langileen lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauak onetsi ziren.

Arau hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an onetsitako erabaki horretan jasotzen den erregulazioarekin bat eman da –erabaki horren bidez, Nafarroako Parlamentuko langileen telelan-araubidea ezarri zen–, Kontuen Ganberaren berezitasunei egokitua. Hori guztia Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 32.2 artikuluan xedatutakoarekin bat egin da; halatan, Kontuen Ganberako langileei Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aplikatuko zaie foru legean aurreikusten ez den guztian, estatutua garatze aldera emandako arauak barne.

Arau hau proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritu eman da, ez dakar berekin inolako eskubiderik murriztea eta zerbitzua telelan-araubidean emateko prozedura arautu eta ordenatu bat bermatzeko ezinbestean bete beharreko eginbeharrak soilik ezartzen dizkie hartzaileei.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, arau-esparru egonkor eta koherente batean txertatzen da araua. Halaber, arauak jasotzen

duen erregulazioak efizientziaren printzipioa zertzeko modua ematen du, halako moduan non telelanaren modalitatea kostu al bait txikienarekin eta baliabiderik egokienekin baliatu ahal izatea lortzen baita.

Arau hau izapidetzean gardentasun eta parte-hartze printzipioak errespetatu dira, Kontuen Ganberako Langile Batzordearekin negoziatu baita.

Horrenbestez, eta Kontuen Ganberari buruzko Foru Legearen 6.2 eta 15.2.d) artikuluetan xedatutakoarekin bat –non lehendakari naizen aldetik erakundearen antolamenduaren eta barne-gobernuaren gaineko eskumena aitortzen baitzait–, honako hau ebatzi dut:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileen lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauak onestea. Arauok ebazpen honi erantsirik doaz, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean.

Bigarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau erakundeko Langileen Batzordeari igortzea eta erakundearen web-orrian argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera emanen dio administrazio bideari. Honen aurka, honako errekurtsio hauetako bat aurkezten ahalko da:

a) Aukerako berraztertze errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, ebazpena jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, ebazpena jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Iruñean, 2021eko azaroaren 26an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelan-araubidean egiteari buruzko arauak

1. artikulua. Telelanaren xedea eta definizioa.

1. Ebazpen honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko langileek lanaldia telelan-araubidean nola egin arautzea.

2. Telelana urruneko zerbitzu-ematearen modalitate bat da, zeinean, zerbitzuaren beharri-zanek horretarako modua emanaz gero, lanpostuaren zereginak lanpostutik kanpo, modu ez-presentzialean, bete baitaitezke, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. artikulua. Telelan-araubideko lanpostuak.

Telelan-araubidean betetzen ahalko dira Idazkaritza Nagusiak zehazten dituen lanpostuak, baldin eta haietan jarduteak ez badu behartzen jendeari edo Kontuen Ganberako organoei zuzeneko arreta ematera, enpleguaren presentzia fisikora, edo kontaktu pertsonalak maiz izatera. Betiere, inguruabar horiek epaituko dira zerbitzuaren beharri-zanek baldintzaturik.

3. artikulua. Telelan-araubidea lanaldiari aplikatzea.

1. Telelan-araubideko lanpostuek lanaldi presentzialak izanen dituzte osagarri.

2. Lanegun bakoitza osoki emanen da telelanean edo zerbitzu presentzialetan, salbu eta ohiz kanpoko inguruabarrengatik komenigarria denean laneguna bi modalitate horien artean banatzea.

3. Telelan bidezko zerbitzu-ematearen nahiz zerbitzu-emate presentzialaren aldi edo egun zehatzak kasuko zerbitzuaren arduradunak ezarriko ditu, enplegatu publikoarekin adostuta, zerbitzu-beharrizanen eta eginkizun-programazioaren arabera.

4. Telelan bidezko zerbitzu-emateak hileroko lanaldian hartuko duen portzentajea baimentze-ebazpenean ezarriko da, ezertan galarazi gabe portzentaje hori aldatu ahal izatea enplegatua edo zerbitzuaren beharri-zanek ukitzen dituzten ustekabeko inguruabarrengatik; horretarako, beharrezkoa izanen da enplegatua eta hura atxikita daukan zerbitzuaren arduraduna ados jartzea. Edonola ere, telelan-lanaldiaren portzentajea ezin izanen da inoiz izan hilabeteko lanaldiaren ehuneko berrogei baino handiagoa; halatan, nahitaezkoa izanen da gainerako denbora presentzialki ematea lanpostuan.

5. Ezohiko egoeretan, telelan-modalitateak lanaldi osoa hartu ahalko du.

6. Salbuespenez, lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko beharrezkoa den kasuetan, telelan-araubidea noizean behin baliatzen ahalko da.

4. artikulua. Telelan-araubidearen espezialitateak.

1. Telelan-araubideko zerbitzu-ematea borondatezkoa izanen da langileentzat, salbu eta ezohiko arrazoiengatik komenigarria denean zerbitzu-ematearen modalitate hori, ezinbestekoa den denboraz.

2. Telelan-araubideari atxikitzen zaizkion langileen eskubide eta betebeharrak lanaldia osoki zerbitzu presentzialean ematen duten gainerako langileen berberak izanen dira.

3. Telelan-araubidean diharduten langileek eskubidea izanen dute segurtasun eta osasunaren arloko babes egokia izateko, eta betiere aplikatzea izanen da Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoa. Halaber, behartuta egonen dira informazioaren segurtasunari eta datu-babesari buruzko indarreko araudia errespetatzera.

4. Nafarroako Kontuen Ganberak bere zerbitzuko langileei telelan bidezko zerbitzu-ematerako beharrezkoa den prestakuntza emanen die.

5. artikulua. Telelan-araubideari atxikitzeko betekizunak.

1. Telelan-araubideko zerbitzu-emateak honako betekizun hauek betetzera behartuko du:

a) Telelan-modalitaterako modukotzat jotzen den lanpostu bat betetzea.

b) Telelana egiteko erabiltzen den tokiak laneo segurtasun eta osasunaren arloko araudi indarduna betetzea.

c) Modalitate honetan lan egiten duten pertsonen, Kontuen Ganberak eskuratu eta mantenduko dizkie beren jarduerarako beharrezkoak diren bitarteko teknologikoak, baina pertsona horiek banda zabaleko konexio bat eduki edo edukitzeko konpromisoa hartu beharko dute, komunikazioa eta informazio-trukea, horien segurtasuna eta konfidentziasuna ahalbidetzeko. Kasuko langileari dagokio bere ekipo informatikoan sorturiko gorabeherak ebaztea, berari egoztekoak direnean.

d) Nafarroako Kontuen Ganberak eskueran ipinitako ekipo eta tresna informatikoak ezin izanen dira erabili lan-zereginetarako beste ezertarako.

e) Informatika Zerbitzuak zilegi izanen du beharrezkoak diren kontrol edo blokeoak ezartzea

ekipo horietan, bermatze aldera haietarako sarre-
ra egiten dela Kontuen Ganberaren datuetarako
segurua den modu batean.

2. Aurreko apartatuan adierazitako betekizunak
ez dira bete beharrekoak izanen lanaldia ezohiko
arrazoiengatik telelan-araubidean eman beharra
suertatzen denean.

6. artikulua. Telelan-araubideari atxikitze-
ko prozedura.

1. Telelan bidezko zerbitzu-ematea baimen-
tzeko prozedura hasiko da langile interesdun-
ek eskatuta, eta beharrezkoa izanen da kasuko langi-
lea atxikita dagoen zerbitzuaren arduradunaren
proposamen-txostena, zeina hamar egun natura-
leko epean jaulki beharko baita. Lan-baldintzak
autoegiaztatzeko galdetegi egokiro erantzundako
bat atxikiko zaio eskabideari, Laneko Arriskuen
Prebentziorako Zerbitzuak prestatua. Galdetegian
jasotzen diren gomendioak beteko direla dioen
erantzukizunpeko adierazpena jasoko du galdete-
gi horrek, bai eta telelanaren arriskuen preben-
tziorako nahitaezko prestakuntza –Kontuen Gan-
berak eskainia– jaso izanari buruzkoa ere.

2. Idazkaritza Nagusiak eskaera baimentze
edo ukatzeari buruzko proposamen arazoitua
emanen du, eskaera hori aurkeztu eta hilabeteko
epean gehienez ere. Telelan bitartezko zerbitzu-
ematea baimentzen duen ebazpena –Ganberako
lehendakariak emana– denbora zehatzerako iza-
nen da betiere, eta gehieneko iraupena urtebete-
koa izanen du.

3. Administrazio-unitate bereko enplegatu bat
baino gehiagok egon nahi badu telelan-modalita-
tera atxikita eta, antolaketa-afarak tarteko, ezinez-
koa bada guztiei ematea baimena, txandakatz-
a aukerak edo enplegatuak eta Idazkaritza Nagusia
ados jartzeko aukerak agortu direnean, honako
hauek eta hurrenkera honetan izanen dute lehen-
tasuna:

a) Genero-indarkeriaren biktima diren emaku-
mezko enplegatu publikoek.

b) Desgaitasunen bat duten langileek.

c) Familiaren bizitza eta bizitza pertsonala
lanekoarekin uztartzeko arazoak dituztenek, hori
horrela dela aurretiaz justifikatuta; esate baterako,
norbere ardurapean edukitzea hamabi urte baino
gutxiagoko seme-alabak edo bigarren graduraino-
ko odol- nahiz ezkontza-ahaidetasuneko familiar-
teko desgaituak, mendekotasunen bat dutenak
edo eri larriak, norberarekin etxean bizitzen.

Kasu horietan, ezkontza-ahaidetasunaz egini-
ko aipamenek barne hartzen dute, halaber, enple-

gatu publikoak eta senitartekoek izatezko bikotea-
ren odol-ahaidetasunagatik duten ahaidetasuna.
Arau hauen aplikazioan efektu berberak izanen
dituzte lehen graduko odol-ahaidetasunak eta
legezko tutoretzak.

Desgaitasuna duten pertsonatzat jotzen dira
Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasun-
nari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun
unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003
Legearen 1.2 artikulua hiru garren paragrafoa-
ren arabera halakotzat hartzen direnak.

d) Etxetik lantokirako bidaiaren denborak eta
distantziak, edo zerbitzu nahiz garraio bide publiko
batera iristeko zailtasunak.

e) Enplegatu publikoek ikasketa arautuak edo
lanpostuarekin zerikusia dutenak egiteak.

f) Ez edukitzeak bateragarritasun baimendurik,
sektore publikoko nahiz pribatuko bigarren lanpos-
turik, kargurik edo jarduerarik betetzekorik.

Baldin eta, aurreko lehen-tasun-irizpideak apli-
katu ondoren, enplegatu publiko batzuegan an-
tzeko inguruabarrak beteko balira, berdinketa
hausteko irizpidetzat hartuko da lanpostuko an-
tzinatatun handiena.

4. Ezohiko inguruabarretan, Idazkaritza Nagu-
siak zilegi izanen du lanpostu jakin batzuetan
zerbitzua telelan-araubidean emateko baimena
ematea.

7. artikulua. Telelan-araubidearen amaiera.

1. Baimena edozein unetan indargabetu ahalko
da, funtzionarioaren edo Idazkaritza Nagusiaren
ekimenez. Azken kasu horretan, interesdunari en-
tzutea eman beharko zaio, eta ematen den ebaz-
pena arazoitu beharko da zerbitzuaren beharri-
zuetan, ezarritako helburuen ez-betetzean, edo
hasierako baimena oinarritu zuten gogoetak eta
betekizunak funtsean aldatzen dituzten ustekabe-
ko arazoietan.

2. Halaber, baimena indargabetuko da ezarrita-
ko epea bukatzeagatik edo lanpostuan gehiago ez
irauteagatik.

3. Telelan-aldi etengabearen gehieneko irau-
pena urtebetekoa izanen da. Iraupen bereko beste
aldi baterako luzatu ahalko da, aurretiaz eskatuta.

8. artikulua. Telelan-araubidearen kontrola.

1. Lan-modalitate hori esleitzen zaion enplega-
tu publikoa atxikita dagoen zerbitzuaren ardur-
a duen pertsonak ezarriko ditu telelanaren bidez
garaturiko eginkizunak kontrolatzeko irizpideak.

2. Oro har eta lehenetsunez, errendimendua-ren kontrol edo ebaluazioa eginen da helburuen betetzea edo emaitzen lorpena aintzat harturik, eta zilegi izanen da bitarteko teknologikoak erabiltzea eginiko lana egiaztatzeko kontrol gehigarriko tresna gisa.

3. Lanpostuan presentzialki emandako denboraren ordutegi-kontrola lanorduei buruzko araudiak ezarritakoari jarraikiz eginen da. Betiere, enplegatu publikoa behartuta egonen da bere zerbitzuaren arduradunari posta elektronikoko mezu bat bidaltzera, hala bere lanaldiaren hasieran nola bukaeran. Horrez gain, telefono-zenbaki bat eman beharko du, lanaldiak iraun bitartean berarekiko harremanetarako erabil daitekeena.

9. artikulua. Lan-arriskuen prebentzioa.

1. Telelan-modalitatean lan egiten duen pertsonak betiere eta bere erantzukizunpean aplikatu beharko ditu 6. artikulua aipatzen duen lan-

baldintzen autoegiaztapen-galdetegian eta telelanaren arriskuen ebaluazioan adierazitako prebentzio-neurriak.

2. Horretarako, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak telelanaren arriskuen ebaluazioa eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean beharrezkoak diren informazioa eta prestakuntza emanen dizkie langile horiei, laneko arriskuak saihestu eta minimizatzen. Halaber, kasuko prebentzio-zerbitzuak laguntza eta aholkua emanen ditu, langileek hala eskatzen dutenean.

3. Kontingentzia profesionalen ondorioetarako, laneko istripuen eta eritasunen alorreko araudi indarduna izanen da aplikatzekoa.

Azken xedapen bakarra. Ebazpen honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.